



Esp.kodea: 2022RBAR0046

Gaia: ARRASATEKO UDALAREN
IRUZURRAREN AURKAKO PLANA
Hasiara eguna: 2022/09/27

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

“ARRASATEKO UDALAREN IRUZURRAREN AURKAKO PLANA ONARTZEA (2022RBAR0046).”

Udalbatzarra osatzen duten legezko 21 zinegotzietatik 20 bilkuran daudela, Udal Plenoak, aho batez, Barne Antolaketaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Europako *Next Generation* funtsen harira eskainiko diren Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsekin finantzaturako proiektuetan, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (gazteleraz PRTR) jasotako neurriak egikaritzeko esparruan, beharrezkoa da erakunde parte-hartzaileen kudeaketa-prozedurak eta kontrol-ereduak egokitzea.

Kudeaketa-sistema horien eraginkortasuna bermatzeko ezartzen diren neurrien artean, HFP/1030/2021 Aginduak, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren gestio-sistema arautzen duenak, bere 6. Artikuluan ondorengo adierazten du: PRTRren neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzaile orok “Iruzurraren Aurkako Neurrien Plana” izan beharko du, dagozkien funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla bermatzeko eta deklaratzeko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez.

Horri jarraiki, Arrasateko Udalak bere Plan propioa onartu behar du. Orain arte, Udal Plenoaren 2022ko uztailaren 19ko akordioz, Eusko Jaurlaritzako Iruzurraren aurkako Planera atxikita egon da. Egun, aldiz, beharrezkotzat jotzen da erakundeak bere plan propioa onartzea, HFP/1030/2021 Aginduak jasotakoa bete ahal izateko.

Azkenik, kontuan izanik Udal honek PRTRren entitate betearazlearen kondizioa duela, legezko xedapenak betetze aldera, Arrasateko Udalbatzari dagokio Planaren onarpena eta dagozkion eranskinak onartzea.

Kodea	H22/08836	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/abe./19	CUDO	000.0055.AAAAXE61.7.69VE
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXE617.69VE		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2022RBAR0046

Gaia: ARRASATEKO UDALAREN
IRUZURRAREN AURKAKO PLANA
Hasiera eguna: 2022/09/27

Azaldutako guztiagatik, Barne Antolaketa Batzordeak Udaleko Osoko Bilkurari erabaki hau hartzea proposatzen dio:

- ONESTEA Iruzurraren Aurkako Plana eta planari dagozkion eranskinak.”

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2022ko abenduaren 19an.

O.E.

Alkatea

Kodea	H22/08836	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/abe./19	CUDO	000.0055.AAAAXE61.7.69VE
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXE617.69VE		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

